

BESTELAKO XEDAPENAK

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

3821

EBAZPENA, 2026ko uztailaren 29koa, Kulturako sailburuordearena, musika-jarduera profesionaletarako dirulaguntzak emateko Balorazio Batzordearen batzarkideak izendatzen dituen, eta batzordearen osaera argitaratzen duena.

Jaurlaritzaren lehenengo lehendakariorde eta Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuaren 2026ko maiatzaren 5eko Aginduen bidez (2026ko maiatzaren 22ko EHAA), musika-jarduera profesionaletarako dirulaguntzak emateko araubidea arautu eta deialdia egin zen.

Agindu horren 11. artikulua xedatzen duenez, aurkeztutako proiektuak aztertzea eta ebaluatzea, modalitate bakoitzeko balorazio batzorde bati dagokio, eta ezartzen du Kultura sailburuordearen ebazpen bidez izendatuko direla bokalak eta argitaratuko dela batzorde horien osaera.

Horiek horrela,

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.— Balorazio batzordeko kideak izendatzea eta horien osaera argitaratzea. Hona hemen osaera:

Batzordeburua: Ana López Asensio, Kultura Sustatzeko eta Kultura eta Sormen Industrietako zuzendaria.

Modalitate bakoitzeko kideak:

- a) Musika partituren edizioa: Jon Bagües Erriondo, Jose Manuel Tife Iparragirre.
- b) Musika-ekoizpena: Javier Andiaarena Martínez, Jaione Ladaberea Taberna, Ekain Pérez Rezola, Jasmin Soud Ormaechea.
- c) Sektore-garapena: Natalia Sánchez Abad, Maite Bilbao Bartolomé, Ainhoa Urretabizkaia Odriozola, Raul Urquiza Pérez.
- d) Zuzen-Zuzenean zirkuitua eta Musika zikloak: Ainhoa Aguirre García, Pedro María Leinena Mendizabal.

Bigarrena.— Batzordeko idazkaria Joseba Etxeberria Saenz (Kultura eta Hizkuntza Politika Sailko teknikaria) izango da.

Hirugarrena.— Honako ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu dadin agintzea, jende guztiak horren berri izan dezan.

Vitoria-Gasteiz, 2026ko uztailaren 29a.

Kulturako sailburuordea,
ANDONI ITURBE AMOREBIETA.